

BIDEOKLIPA

Proiektu hau Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat dago prestatuta. Azken kurtsoa dela eta, oroitzapen moduan bizitako momentu desberdinak jasotzeko bideoklip bat sortuko da. Beraz, helburu nagusia, honen muntaia egitea izangoa da. Hala ere, bideoklipa aurrera eramateko, beste hainbat helburu bete beharko dituzte.

Lehenik eta behin, abesti bat aukeratu beharko da. Abesti horrekin batera, bideokliparen gaiaren ezaugarri desberdinak garatuko dira. Behin lehen urratsa bete eta gero, bideoklipan azaldu nahi dena aukeratu behar da eta martxan jartzeko beharrezkoak diren baliabideak erabaki behar dira. Hainbat gauza egin daitezke; dantza, antzerki txiki bat, argazkien muntaia, perkusio txikiko instrumentuak sortu eta abesti erritmiko bat asmatu (aukeratutako abestiarekin lotuta), mozorroak, horma irudiak....

Guzti hau eginda dagoenean, bideokliparen grabaziora joko dugu. Lehenik, zati bakoitza grabatuko da eta gero, zati guztien grabaketak batuko dira bideokliparen muntaia aurrera eramanez.

Erabiliko diren tresnak gehienbat teknologi berrieekin lotuta dago.

- Teknologi berriak: fotos narradas, movie maker, bideo kamara programak erabiliko dira eta informazioa bilatzeko internetera joko dugu.
- Mozorroak, perkusiozko instrumentuak eta horma irudia egiteko material birziklatua eta beste hainbat material erabiliko dira.